

hazi

LEA-ARTIBAIKO EKONOMIA ALDIZKARIA

2011ko EKAINA

23. ZK. • 7.urtea

6-7



JUAN CASTRO

[SPRI]

Enpresaren ezaugarriak
eta desberdintasunak,
lehiakortasun balio

Idea Strategy:
enpresaren barne
indarrari
etekina ateratzen

Enpresaren
eraldaketarako
tresnak eta
baliabideak, eskura

Talleres Peña,
aluminioan
erreferente



HAZI aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Azaro Fundazioa

LEGE GORDAILUA: **BI-804-05**

EGOITZA: **Xemein Etorbidea 12-A**
48270 MARKINA-XEMEIN

TELEFONOA: **94 616 91 72**

E-POSTA: **azaro@leartik.com**
leartibai@leartibai.com

TESTUAK ETA ARGAZKIAK:
Hitza, Leartibai Garapen
Agentzia eta Azaro Fundazioa
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: **11 BARRI**

WEBGUNEAK:
www.azarofundazioa.com
www.leartibai.com

AURKIBIDEA

Editoriala 03
«Traineruak eta trenak»

Enpresak sortzen 04 - 05
IDEIA STRATEGY
Bezeroaren proiektuak norbere

LOTU OINETAKOAK
Urrats sendoz

Ikuspegia 06 - 07
JUAN CASTRO
[SPRI-KO BERRIKUNTZA, TEKNOLOGIA ETA INFORMAZIOEN GIZARTE GAJETARAKO ZUZENDARIA]
«Inoiz baino gehiago,
gure izaera ekintzailea indartu behar dugu»

Bertoko enpresak ezagutzen 08 - 09
TALLERES PEÑA
Leihoaz bestalde
AMAIA FRUITATEGIA
Zukua ateratzen

Behatokia 10 - 11
Enpresaren eraldaketarako
tresnak eta baliabideak, eskura

Leihatila 12

EDITORIALA

Traineruak eta trenak

Egoera ekonomiko orokor ezkor batean murgilduta gauden arren, **HAZIK**, bere izpirituari jarraiki, enpresen lehiakortasuna sendotzeko faktoreengan eragin nahi du, eta enpresa berrien sorrerarako giltzak azpimarratu nahi ditu. Izan ere, jarduera ekonomiko indartsuak, euren erreferentziako sektoreetan ondo kokaturiko jarduerak behar ditugu Lea-Artibain; lan kualifikatua eta denboran iraugarria sortuko dutenak; inguruaren garapen jasangarriari inplikatuak; pertsonen garapen pertsonala eta profesionala oinarri dutenak; eta finean... Lea-Artibai eskualdeko biztanleak bizi kalitatean eragingo dutenak.

HAZI-ren zenbaki honetan enpresen lehiakortasunean laguntzea asmo duten programen inguruan mintzo gara. Berrikuntza eta kalitatean eragin nahi duten programak. Ideia berriak identifikatu eta lantzerantz animatu nahi dutenak, pentsatuz enpresen lehiakortasunaren giltza produktu/zerbitzu berriak edo berrituak eskaintzean dagoela - *balio-ekarpen* berria egiten dutenak-, ohiko merkatuetan eta merkatu berrietan. Programa eta laguntza hauek egungo enpresen barne antolamenduak eta lidergo estiloak aldatu behar direla aipatzen dute. Eraldaketa eta berrikuntza orok alineatuta dagoen talde indartsu bat behar duela esaten dute, eta horretan lagundu nahi dute.

Lea-Artibai eskualdeko gure enpresek hau guztia barneratuta daukate, eta askok eta askok irakaspenak ematen dizkigute, gainera, erronka hauek lagundu nahian gabiltzanoi: mundura zabalik daude bertoko lanpostuak mantendu eta/edo gehitu nahian; berrikuntza, ikerkuntza eta garapenaren be-

harra barneratuta daukate, eta esparru horietan inbertitzen dute; langileen formazioan eta garapen profesionalean eragiteko planak dituzte martxan... baina batez ere erakutsi digute garrantzitsua zera dela: enpresek –handiagoeak eta txikiagoeak, merkatuan kontsolidatuek eta berriek- etorkizuneko proiektua definituta edukitzea. Nor diren eta nora doazen argi izatea. Eta batez ere, ikuspegi hori lantaldean konpartitua egotea.

Arraunlariak talde bezala egin behar dute arraunean eta patroi-liderra behar dute trainerua ondo joan dadin. Sarri esaten ditugu honelako esaldiak. Gure eskualdean Kontxako Bandera irabazi dezaketen traineruak daukagu, zorionez. Baina baditugu traineruaren metafora kontuan hartzen ez dutenak ere. Lehiakortasun premiei aurre egin nahian dabilzanak, norabidea, helburuak (Kontxara heltzea) eta talde izaeraren (trainerua) estrategikotasuna bigarren mailan utzita.

Beste esatera bat aprobetxatuz, argi dago trenak ez direla etengabe pasatzen. *Aitzitik, batzuetan behin bakarrik pasatzen dira. Eta gainera, ez dira gelditzen, lasai-lasai, barrura sartu gaitzen.* Salto egin behar dugu barrura. Horregatik, gure helmuga zein den jakin behar dugu, eta geltoki egokian prest egon momentu egokian.

Enpresok helburu argiak definitu behar ditugu oinak lurrean ditugula *tren egokiak* hartzeko eta zuzendariak, liderrek, argi izan behar dute, umiltasun osoz, talde gabe ez dagoela *banderarik!*

BABESLEAK



EL FONDO SOCIAL EUROPEO
INVIERTE EN TU FUTURO



Produktu hau Valora proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantzaziorako funtsen %50 EGI Fek eman du (POPV 2007-2013)

IDEIA STRATEGY

[AHOLKULARITZA ESTRATEGIKOA - MARKINA-XEMEIN]

www.idea.biz



Bezeroaren proiektuak, norbere

Negozio aukera berriak zabaltzeko premiaz hitz egiten den garai hauetan, estrategia ondo definitzea derri-gorrezkoa da.

Idea Strategy enpresa kooperatiboak hainbat arlotan diharduten profesionalak batu ditu, enpresa horien barne indarrak baliatuta proiektu berriei bultzada emateko.

Lehendik ere elkarrekin lan eginda, eta enpresa txikien premien jakitun, ekonomista bi eta ingeniari bat batu dira, markinar bi eta asturiar bat, kooperatiba izaerako proiektuan, zerbitzu teknikoak, kudeaketa kontrola eta fiskalitatea eta kontabilitatea eskaintzeko.

“Gure bezero potentziala enpresa txikia da, enpresa ezaguna, eta aktibitate berria zabaldu nahi du. Laguntza estrategikoa ematen diogu; batzuetan, lankidetzaren horretan sartzen dira guk lantzen ditugun zerbitzuak; beste batzuetan, ez. Horrelakoetarako, fre-

elancea daukagu”, adierazi du Enrique Ardurak. «Enpresa txikietan, dibertsifikazio premia ez da betetzen, kudeatzaileak edo eta jabeak askotan kanpoan daudelako eta ez daukatelako astirik berrikuntzak inplementatzeko». Eskarmentuak erakutsi die hori Idea Strategy-koei, aurretik Euskaltel eta Enerpelleten lan egin izan dute eta. Amankomunean hasi duten bide honetan, lau bezero daukate. Izan ere, epe luzerako lana da eurena, hirutik bost urtera artekoa.

“Orain arteko eskema zera izan da: konponbide berdinak arazo berdinentzat. Gaur egungo arazoak desberdinak dira, eta konponbide berriak eta malguak aurkitu behar dira”, esan du Ardurak.

“

Enpresa txikietan, dibertsifikazio premia ez da betetzen, kudeatzaileak edo eta jabeak askotan kanpoan daudelako eta ez daukatelako astirik berrikuntzak inplementatzeko.

Egoera ez da onena, baina gainditzeko, enpresa eta aktibitate berriak sortu behar dira. “Aktibitate berriak sortzen dutenak enpresa txikiak dira, eta etorkizunera begira lana bermatuta egon ahal da”.

Idea strategyren **eskaintza**, laburrean:

- Proiektu berriak bai, baina neurritz; ahalmenak kontuan hartuta.
- Enpresaren egiturari balioa eman behar zaio eraginkorrak izateko.
- Merkatuak zabaldu aurretik, baliabideak sortu ahal direla bermatu: merkatua ikertu.
- I+D+i dinamikak sortzeko taldeak eratu: Idea strategy, bezeroaren egituraren baitan

Bezeroarekin batera landutako plangintza estrategikoa, merkaturatzen dituzten produktuei eta merkatu eremuari buruzko informazioa jasotzen dute, eta helburuak lortzeko bidean lagun dira, banatzaileak lokalizatu eta harremanetan jartzeko. Beste alde batetik, merkatu berrietara zabaltzeko sasoian, baliabide informatikoak oso go-goan dituzte, eta haiei esker, enpresaren garapenaren ikuspegi eguneratua edukitzeko era izango dute. “Hartara, erabakiak hartzeko aukera dago, arazoak sortu aurretik”.

Idea Strategy Lea-Artibai Berrikuntza Guneko enpresa haztegiaren kokatuta dago, Azaro Fundazioaren tutoretza zerbitzua jasotzen duen Mainer Legarraren eskutik.



Mainer Legarra
Basterretxea
SUSTAPEN
TEKNIKARIA
AZARO FUNDAZIOA

[UMEEN OINETAKOAK - LEKEITIO]

LOTU OINETAKOAK

www.lotu.oinetakoak.eu

Urrats sendoz

Pentsatzeko denbora gutxi behar izan zuten. Gerokoa izan zen nekeza.

Urte bi behar izan zituzten denda martxan ipintzeko, baina azkenean, heldu zen eguna, eta 2010eko abuztuaren 2tik, martxan dago Lotu oinetakoak, Lekeitioko Otxoa Urkiza kalean (zine aurrean).



“Amaia lan barik geratu zen, eta ideiak ematen hasi ginen”. Hori diona Itxasne Goitiz da, Amaia Bereicuaren lankide eta lehengusina. Animatu eta negozioa martxan ipintzea pentsatu zuten, bien artean. Herrian horren falta zegoela ikusita, umeen oinetako denda ireki zuten. Bientzat ere ez zen gauza berria dendan aritzearena, urte asko daramatzate-eta merkataritzan. Goitizek, gainera, beste denda bat ere badauka joan den hamar urtean. Edozelan ere, ekimen berria da, biek ere estreinako egiten dute-eta beharra oinetako denda baten.

Pozik daude eduki duten harrerarekin; “bidea egiten goaz”, esan dute. Lekeitiarrak ez eze, inguruko herrietako jendea ere hasi da dendara etortzen. Beste alde batetik, zerikusi handia ei dauka urte sasoiak. “Denboraldi hasieran, umeei zapatak txikiegi geratzen zaizkienean, gurasoak aringa-aringa etortzen dira oinetako bila”, esan du Bereicuak.

Eta euren apustua, barietatea. Umeentzako zapatak aurki daitezke Lotu-n; ez edozelakoak, oster, neurri bakoitzeko modelo bat topatu ahal baita. Dendan ez dago errepikatzen den modelorik, beraz, eta hori apustu gogorra izan da, Bereicuak eta Goitizek diotenez. Apustu horrekin bat eginez, familia-

ren laguntza izan dute. Hori aldeko izan duten gauzen zerrendan. Badaude aipatzeko moduko gauza gehiago ere, formakuntzari lotutakoak: eskaparatismoaren inguruko ikastaroak, informatika ikastaroak,... Aurrera egiten lagundu die horrek denak. Beste aldean, trabak. Izan ere, denda ireki arteko bidea ez da erraza izan: lokala aurkitu, obrak egin,... Gustuko materiala

Herrian umeentzako oinetako denda falta zela antzeman zuten. Barietatea izan da apustua.

lortu arteko bidea ere ondo gogoan daukate. “Hornitzaileek ez zuten erakusten guranako konfiantzarik”. Gaur egungo testuinguru ekonomikoak eragindako mesfidantza. Hori aldatu da, baina; gero eskaerak normal egin izan dituzte eta.

Pozik daude dendak hartu duen martxarekin, bai; baina hankak lurrean dauzkate. “Lehenengo hiru urteetan, ez duzu dirurik ikusten, ze dirua sartu ahala, inbertitu egin behar duzu”. Esperientzia gradu bat ei da, eta Itxasne Goitiz merkataritzan daukan esperientziaren baliatzen da hori esatean.

“Ilusioa? Sobre!” Proiektu berria esku artean edukitzeak ematen duen ilusioarekin hitz egiten dute biek. “Lekeitiarrei beste denda batzuetan saldu izan diegun modura salduko diegu, orain, haien ondorengoei”, esan du Amaia Bereicuak.



Amaia Bereicua eta Itxasne Goitiz



Xabier Gabiola Eiguren
LEKEITIOKO UDALEKO
GARAPEN ETA
ENPLEGU AGENTEA

Beste askok egin duten bezala Amaia eta Itxasnek Leartibai Garapen Agentziarengana jo zuten eta Xabier Gabiola Lekeitioko Udaleko Garapen eta Enplegu Agentzaren laguntza jaso zuten negozioa martxan jartzeko.



« INOIZ BAINO GEHIAGO, gure izaera ekintzailea indartu behar dugu »

JUAN CASTRO

[SPRI-KO BERRIKUNTZA, TEKNOLOGIA ETA INFORMAZIOEN
GIZARTE GAIETARAKO ZUZENDARIA]

SPRI eraldaketa lehiakorrerako Elkartea da. Eusko Jaurlaritzak sortu zuen, 1981ean, bertoko enpresa ehunari babesa eta bultzada emanaz lehiakorrago egin zitezen, eta mundu mailako merkatuan hobeto kokatu.

Zein da SPRIren helburua?

SPRIren helburua euskal enpresak lagundu eta babestea da; ekarpena egitea lehiakorra goak izan daitezen. Hartara, Euskal Autonomia Elkartearen aberastasuna sortu eta herritarren ongizatea hobetzen laguntzen du, pertsonen garapen jasangarriaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Sustapenerako Politikaren baitan.

Enpresa eraldaketa arloan programak sortu dituzue, propio, enpresen eraldaketak ahalbidetzeko. Zertan oinarritzen dira?

Enpresa Txiki eta Ertainen eraldaketa prozesuak eta aldaketa kulturalak erraztea dugu

helburu, programen eta lehiakortasunaren hobekuntzarako sustapen zerbitzuen bidez. Arlo honetatik, COMPITE INICIATIVAS edo + INNOVA 2011 moduko programak sustatzen dira. Programa hauek hainbat ekimen bultzatzen dituzte: berrikuntza ekimenak, produktuak eta prozesuak berritu eta gehitzeko ekimenak eta enpresetako giza baliabideen antolakuntza eta garapena sustatzeko ekimenak.

Zeintzuk dira enpresa lehiakorrangoak egiteko giltzarriak?

Gure enpresak, gaur egun, krisi testuinguru batean lehiatu behar dira, gero eta zabala goa den ekonomia globalizatu baten baitan. Hartara, bertoko enpresa ehuna lehiakorrangoa izan dadin, eta hori lortzeko behar den eraldaketa gauza dadin, ezaugarritzen eta desberdintzen gaituzten balioak babestu behar ditugu, gure ekimenaren bidez. Beraz, gure izaera ekintzailea indartu behar dugu, inoiz baino gehiago, esperientzian zein eza- gutza berrietan oinarritutako berrikuntzari

balioa eman. Ahalegina, kemena eta hobetzeko grina izan behar dira oinarri enpresak krisitik irten daitezen eta, hurrengo urteetara begira, lehiakortasunaren zein gure giza kapitalaren oinarriak finka daitezen.

Kanpoko merkatuaren aukerei ere ematen diozue garrantzia...

Gure enpresek lanean jarraitu behar dute gure produktuen eta zerbitzuen bikaintasuna eta kalitatea lortzeko, eta merkatua beste era batera ikusten hasi behar dira. Munduan eta beste merkatu batzuetan gertatzen ari diren aldaketetara zabaldu behar gara. Gogoratu behar dugu Europatik kanpoko hainbat merkatutako enpresa eta ekonomi jarduerak gorakada garrantzitsua izaten ari direla, eta aukera iturri direla gure enpresentzat.

SPRIk nola laguntzen du eraldaketa honetan? Zeintzuk programa eta laguntza daude?

SPRIk gure enpresei nazioartera zabaltzen laguntzeko 50 herrialde baino gehiagotan

“ Enpresa txiki eta ertainen (ETE) eraldaketa prozesuak eta aldaketa kulturalak erraztea dugu helburu, programen eta lehiakortasunaren hobekuntzarako sustapen zerbitzuen bidez ”

barreiatutako bulego sare zabala dauka, ez bakarrik enpresei nazioartera hedatzen laguntzeko dirulaguntza programak. Horrez gain, gure enpresak garatu eta eraldatzera bideratutako Laguntza Programa zabala dauka, hala nola, ekipamendu inbertsioa, Informazio Gizartearen eta Informazio Teknologien sustapena, lehiakortasuna, berrikuntza, krisia gainditzeko erak eta ekintzailtza. Programa hauei guztiei buruzko informazioa spri.es helbidean aurki daiteke.

Zein da SPRI eta Lea-Artibai eskualdeko bitarteko eragileen (Leartibai Garapen Agentzia eta Azaro Fundazioa) arteko harremana eta horren garrantzia?

SPRI eta Lea-Artibai eskualdeko bitartekarien arteko hartu-eman oso estua da. Hainbat proiektutan dihardugu batera. Esate baterako, azken hileetan, Azaro Fundazioa Lea-Artibaiko enpresen lehiakortasunaren inguruko proiektua garatzen ari da, SPRIK finantziatuta, COMPITE Iniciativas programaren baitan.

Etorkizunera begira, zer izan beharko lukete kontuan enpresek?

Ingurune soziala eta ekonomikoa ikusteko era, negozioa ikusteko era, aldatu egin behar dute, ikuspegi zabalagoa izan behar dute, hartara, merkatu aukera gehiago edukiko dituzte eta. Produktu lerroen dibertsifikazio prozesuak bultzatzea da bidea, lan egitea merkatu eta bezero berriak lortzeko, nazioartera zabaltzea eta ekoizpena handitzea barne proiektuak gauzatzea. Eta honen guztiaren oinarrian, pertsonak daude. Beraz, premiazkoa da pertsonen garapenean eta kapitalizazioan inbertitzea.

zerbitzuak
[www.spri.es]

DIRULAGUNTZAK

- Nazioartekotzeko laguntza
- Inbertitzeko laguntza
- Informazioa eta komunikazioa gizartearen zabaltzeko laguntza
- Lehiakortasuna hobetzeko laguntzak (I+G+b, berrikuntza, IKT)
- Enpresetan ondorengotza prozesurako laguntzak
- Krisialdia gainditzeko laguntzak

AZPIEGITURAK – SPRILUR

Lur industrial, eraikinak eta bulegoak bultzatzen ditu, eta sarrera errazten du. Lea-Artibairen kasuan, Okamika Industrialdean, Gizaburuagan.

FINANTZA ARLOA

Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, AK EKS S.A (Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, SGEGR S.A): SPRI Taldearen barruko Sozietate bat da. Kapital sozialean parte-hartze minoritarioa eta aldi baterakoa jartzen du. Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, AKEKS S.A. sozietateak EAEn kokatutako enpresetan inbertitzen du, baldin eta enpresa horiek etorkizuneko proiektu bat badute eta proiektu hori gauzatzeko laguntza sendoa behar badute.

NAZIOARTEKOTZEA

Atzerrira irteteko prozesu osoan, enpresentzat laguntza eskaintzen da. Jomugei buruzko informazioa, merkatu ikerketak, babesak eta laguntza ezarpen komertzial eta produktiboak egiteko, behin-behineko kokalekuak zehazten dira eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dira kanpora irten nahi duten enpresentzat. Horretarako, bulego iraunkorrak eta tokiko aholkulari espezializatuak daude 50 herrialde baino gehiagotan.

PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

- IT-Txartela: Informazio Teknologien oinarriko ezagutzak ziurtatzeko sistema da.
- Barnetegi Teknologikoa: Informazio Teknologiek, Internetek eta 2.0 inguruneak eskaintzen dituzten aukerei eta balioari buruzko prestakuntza trinkoa.
- Enpresa digitala: Sarean negozio berriak garatzen laguntzea; eta horretarako, gaikuntza eta babesak eskaintzen zaie ekonomia berriko profesionalari.
- Directivo21, Zuzendaritza-karguentzako prestakuntza: erakundeetako zuzendaritza postuetarako beharrezko gaitasunak lantzeko prestakuntza.
- Lider21, Berrikuntzarako liderak: pertsona talde baten arduradun diren eta berrikuntza proiektuetako lider izango diren pertsonen zuzenduta dago, eta kudeaketarako gaitasunak lantzeko da.
- Sarea 21: Antolakuntza berritzaileetako zuzendaritza-karguen sarea.
- KZ Prestakuntza: Mikroenpresa, autonomo eta merkatariei zuzendutako Interneti buruzko prestakuntza.

TALLERES PEÑA

[METAL AROZTEGIA - ONDARROA]

Leihoaz bestalde

Lea-Artibain, aluminioan diharduen enpresa bakarra da Talleres Peña. Ondarroako Gardotza industriagunean kokatuta, enpresa familiar honek harreman estua dauka dekoratzaileekin eta gremioetako gainontzeko enprekin. Ez daukate lanik soberan, baina faltarik ere ez.



Jon Ander Peña



Lan pertsonalizatua da talleres Peñaren berezitasuna. Leiho sendoagoak egiten dituzte, "obran egiten direnak baino hobeak".

60. hamarkadan zabaldu zuten Talleres Peña. Jon Ander Peñak eta haren hiru ana-arrebek jarraitu zuten, ikasketak amaitu ahala, aitak hasitako bidea. Kotxeen konponketa izan zen lehenengo egitekoa tailerrean, eta aluminioaren espezializazioa etorri da gero. 1984tik, Gardotzan daude, ez lau anaia-arrebak, baina bai bi, eta haiekin batera, beste lau behargin. Burdinlanak, barandak, komertzioetako erakusleihoak eta, batez ere, etxeetako leihoak egiten dituzte.

Horrenbeste urte beharrea lanean daraman enpresa izanik, aldi ekonomiko desberdinak bizi izan dituzte, eta gaur egun denon ahotan dabilen krisia lehenagotik dator euren jardueran. "Gure sektorean krisiak ez daromatza urte bi. Etxeko andrea urteetan beldurtuta dago. Jendea ez da animatzen obra egitera, normala denez. Lanik ez zaigu falta, hala ere, soberan ere ez daukagun arren", adierazi du Peñak.

Lan pertsonalizatua da talleres Peñaren berezitasuna. Leiho sendoagoak egiten dituzte, "obran egiten dire-

nak baino hobeak". Eta gremioen artean eskualdean osatuta dagoen sareari esker, aurrera jarraitzen dute. "Hiru-lau dekoratzaileekin egiten dugu beharra, euren gustura. Etxea apurtzen duenak apaintzaileari dei egiten dio, eta apaintzaileak geuri". Gremioen arteko hartu-eman onari ahoz ahoko "publizitatea" gehitu behar zaio. "Bezeroa gustura gelditzen bada, laster zabaltzen da".

Aluminiara dedikatzen den eskualdeko enpresa bakarra da, eta horrek lan asko ematen die. Izan ere, eskualdetik kanpo lan eginda ere, Lea-Artibai da Talleres Peñakoen lan eremu naturala. Dena dela, askotan kanpora jotzen da lan eske, etxean zeinek egin edukita ere. "Bertoko enpresa txikiek parte-hartze txikia edukitzen dugu zenbait lanetan. Zer edo zer ofiziala egiten denean, bertoko tailerrei ez zaie lanik ematen", kritikatu du Peñak.

Egunerokoari erantzutea. Horixe da Talleres Peñaren plangintza: eskatu ahala, egitea. Tailerreko arduradunaren ustez, hori baino gehiago ezin da aurreikusi gaur egun. Etorrizunera begira, gogo bat ere konpartitu du, euren bezerorik ohikoena gogoan. "Ea krisia pixka bat pasa eta etxeko andrea etxean obrak egitera animatzen den. Momentu honetan esan daiteke mugimendua sumatzen dela".

[FRUITATEGIA - LEKEITIO]

AMAIA

Zukua ateratzen

Amaia Retolaza lekeitiarrak urte asko daramatza Arranegi zabaleko fruitategian lanean, lehenengo saltzaile, eta gero dendaren arduradun.

2000tik, bera da hango buru, izena ere berea dauka (Amaia fruitategia), eta denda gustura edukitzeko ahaleginik egin barik ez dago. Bere gustura eta bezeroen gustura; Kalidenda programako urratsei jarraituta, are gusturago.

“Bertoko zortzi-hamar dendak ikastaroa egin genuen. Irakasleek esaten ziguten zer daukagun betetzeko, eta denbora eman ipintzeko; esate baterako, erreklamazio orriak eduki behar ditugula bezeroak eskatuta ere; edo ezin dela erre esaten duen oharra bistan egon behar dela”, adierazi du Amaia Retolazak. Orain bost urte, denda

berritu zuen, fruitategia beregain hartu eta berehala. Orduan egindako aldaketa askori esker, errazago lortu du Kalidendaren ziurtagiria, derrigorrez egin beharreko gauza asko ordudunik dauzka-eta eginda.

“Egia esan, Kalidenda ez da hain gaitza betetzen, denda ganoraz badaukazu; Kalidenda ziurtagiriak ez du aparteko burukominik ematen”, esan du Retolazak.

Amaia Retolazak Kalidenda ziurtagiriaren onurak aipatu ditu. “Begiak zabaltzen dizkizu. Beharbada badaude gauza batzuk ohartu ere ez zarena egiten; egin egin behar diren gauzak, eta jabetu ez, eta erraz-errazak direnak, esate baterako, bezeroari arreta egiteko erak. Azken batean, gauza logikoak dira”. Eta hobekuntzak egitea beti denez mesedegarria, Retolazak eskertu egiten du tailer eta lehiaketetan parte hartzeko jasotzen duen gonbitea.

“ Kalidenda ez da hain gaitza betetzen, denda ganoraz badaukazu ”.



Kalidenda programa bere merkatal establezimenduan ezarri nahi duenak Leartibai Garapen Agentziaren laguntza izan dezake. Bakarne Larrinaga da honen arduraduna.



**Bakarne
Larrinaga
Arrasate**

MERKATARITZA
ARDURADUNA
LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA

KALIDENDA ▶

KALIDENDA ziurtagirian saltoki txikien hainbat arlo lantzen dira, guztiak legedia betetzera eta kudeaketa orokorraren hobekuntzara bideratuta. Denda txikiei zuzenduta dago, diren motatakoak direla, eta ez du koste ekonomikorik suposatzen. Honako helburuak lortzen dira:


- Saltoki txikiek legez bete behar dituzten arauak betetzen laguntzen da.
- Saltokien kudeaketa profesionalizatu.
- Bezeroei emango zaien zerbitzuaren kalitatea bermatu.
- Kalitatezko ziurtagiriaren bitartez saltokia nabarmendu.

LEHIAKORRAGO izateko

Entitateek hainbat baliabide jarri dituzte enpresa ehun lehiakorrago lortzeko helburuarekin.

Nahiz eta langabezi tasa Lea-Artibai eskualdean Bizkaiko eta EAE-ko langabezi tasa baino baxuagoa izan, 2011ko lehenengo lau hilabeteetan, gorako joera izan du. Langabezi tasaren igoera hau EAE-en eta Bizkaia mailan emandako igoera baino leunagoa izan den arren, %10,22ko langabezia tasara heldu gara 2011ko apirilean Lea-Artibain. Horrek, 2010ko langabezi tasaren batz bestekoarekin konparatuz, %13,3ko igoera suposatzen du. EAE eta Bizkaia osotasunean hartuz, datuak ezkorragoak dira, langabeziak %15,91 eta %18,73 egin baitu gora 2010. urteko batz besteko tasa 2011ko apirilera tasarekin konparatzen badugu.

Egoera makur honen beste erakusle bat establezimenduen kopurua da. Beherantz egin du 2008tik 2010era bitartean, hurrengoko taulan eta grafikoetan adierazten den bezala. Hau da, azkenenengo bi urteetan, gehiago dira zarratu diren negozioak zabaldu direnak baino.



LANGABEZI TASAK:

	2010	2011 Urtarrila	2011 Otsaila	2011 Martxoa	2011 Apirila
EAE	12,28	13,28	13,49	14,06	14,21
Bizkaia	13,12	14,39	14,67	15,26	15,53
Lea-Artibai	8,99	9,65	9,37	10,11	10,22
Amoroto	5	3,94	6,13	6,13	6,13
Aulesti	6,99	9,69	10,02	9,36	9,36
Berriatua	9,38	10,02	9,88	9,59	10,17
Etxebarría	5,45	7,3	7,79	9,49	8,76
Gizaburuaga	5,56	4,7	4,7	4,7	3,76
Ispaster	5,76	5,55	4,93	7,71	7,4
Lekeitio	9,58	9,42	9,6	10,28	10,13
Markina-Xemein	7,72	8,86	8,34	8,9	9,29
Mendexa	10,11	12,92	11,07	12,45	11,07
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	5,64	4,91	4,41	6,87	6,38
Ondarroa	10,84	11,39	10,67	11,63	11,95
Ziortza-Bolibar	6,59	6,59	7,14	6,04	6,04

Iturria: Garapeneko Udal Behatokia

ESTABLEZIMENDUEN KOPURUAK:

	2006	2007	2008	2009	2010	2006-2010 aldea	2009-2010 aldea
EAE	186.306	199.310	203.911	201.952	191.057	2,55%	-5,39%
Bizkaia	95.871	101.900	104.838	104.510	99.086	3,35%	-5,19%
Lea-Artibai	1.843	1.969	2.020	2.010	1.925	4,45%	-4,23%
Amoroto	17	19	19	19	18	5,88%	-5,26%
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	24	23	22	21	25	4,17%	19,05%
Berriatua	103	120	124	119	120	16,50%	0,84%
Etxebarría	64	66	66	62	59	-7,81%	-4,84%
Gizaburuaga	37	40	42	41	42	13,51%	2,44%
Ispaster	34	35	41	39	41	20,59%	5,13%
Lekeitio	487	525	540	540	510	4,72%	-5,56%
Markina-Xemein	350	378	395	399	379	8,29%	-5,01%
Mendexa	28	31	34	36	35	25,00%	-2,78%
Aulesti	42	42	45	42	40	-4,76%	-4,76%
Ondarroa	645	675	678	679	642	-0,47%	-5,45%
Ziortza-Bolibar	12	15	14	13	14	16,67%	7,69%

Iturria: Eustat, Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID)

LEA-ARTIBAI ESQUALDEAREN GARAPENAREKIN KONPROMETITURIK

- Aholkularitza I+G prozesuetan
- Proiektu berritzaileen azeleratzailea
- Zaintza estrategikoa, eta negozio aukera berrien etengabeko bilaketa
- Ekintzaileentzako laguntza eta aholkularitza
- Enpresa berrien haztegia ...

... Berrikuntza eta ekintzailetasuna bultzatzeko diseinatutako gunea

Datu hauek kontuan hartuz, garapen ekonomikoa bultzatzea helburu duten entitate publiko eta pribatuek hainbat tresna eta baliabide jarri dituzte enpresa ehun lehiakorragoa lortzeko helburuarekin. Tresna hauek, batez ere enpresen nazioartekotzea, berrikuntza eta produktu eta merkatu dibertsifikazioa bultzatu eta babestera bideratuta daude, ekonomia suspertzeko jarraibide egokienak direlako.

Hona hemen bideratzen diren hiru laguntza:

1. COMPITE: Programa honek, bi lan ildoen bitartez, **enpresen lehiakortasuna hobetzeko** ekintzak bultzatu nahi ditu, eta laguntza pertsonalizatua eta finantzarioa eskaintzen die proiektuak gauzatzeko.

- **Lehen lan ildo**a enpresa txiki eta ertainei zuzenduriko laguntza ekonomikoa da, banaka zein enpresen arteko lankidetzaren bitartez egindako proiektuak gauzatzeko. Kasu horretan, kanpo aholkularitzaren kostuaren %50 finantzatzen da, baita proiektura bideratutako pertsonalaren kostua ere, besteak beste.

2010eko deialdian 381 enpresen proiektuak onartu ziren EAE mailan. Horietatik %59 enpresek bakarka aurkeztutako proiektuak ziren.

EAE-an 381 proiektu onartuak	
Industria	% 50,70
Mekataritza (handizkako eta txikizkako)	% 10,50
Informazioa / Komunikazioa	% 9,80
Ikerkuntza	% 8,90
Eraikuntza	% 7,40

Iturria: Compite Programan onartutako proiektuen banaketa, sektoreka.

Lea-Artibaiko 6 enpresak aurkeztu zituzten proiektuak 2010. urtean, eta horietatik 2 onartu zituzten. Bi proiektu hauek Azaro Fundazioaren laguntzaz definitu eta garatu zituzten.

- **Bigarren lan ildo**a EAE-ko Garapen Agentziei zuzendutako laguntza da. Laguntza honen bitartez, eskualde bakoitzeko Garapen Agentzia enpresa eta erakunde publikoen arteko bitartekari izatea lortu nahi da. Bide batez, proiektuak bultzatu nahi dira, enpresek banaka zein taldeka sortutakoak.

	Onartutako proiektuak	Ez onartutako proiektuak	Guztira aurkeztutako proiektuak
Bilbo aldea	59	25	84
Durangaldea	23	9	32
Txorierrri	15	7	22
Enkarterri	3	3	6
Lea-Artibai	2	4	6
Uribe Kosta	6	-	6
Busturialdea Urdabai	3	-	3
Arratia Nerbioi	2	-	2
Bizkaia	113	48	161

Iturria: Compite Programan aurkeztutako proiektuak, eskualdeko

Hauek dira besteak beste, lan ildo honen baitan Garapen Agentziak enpresei eman beharreko zerbitzuak: enpresa bakoitzaren zuzendutako dauden laguntzen berri eman, enpresen proiektuak definitzen eta martxan jartzeko lagundu, eta proiektu horiei babesa eman.

Leartibai Garapen Agentziak eta Azaro Fundazioak elkarlanean dihardute bigarren lan ildo hau lantzen Lea-Artibai eskualdean, eta hurrengoak dira programa honen baitan 2010ean lortutako emaitza esanguratsuenak:

- Eskualdeko 352 enpresari beraientzako dauden diru laguntzen inguruko informazioa zabaldu zaie.
- 50 enpresen diagnostikoa egin da, enpresen gaitasunak eta beharrianak ezagutzeko.
- Enpresei zuzendutako 5 elkargune antolatu dira: elkargune hauetan, enpresek zehaztutako gaien inguruko eztabaidak antolatu dira, adituekin.
- Enpresek egindako 13 kontsultari erantzuna eman zaie
- 31 negozio ideien kontrastea egin da enpresentzat
- 30 enpresekin proiektuak landu dira. Hauetatik 11, merkatuaren dibertsifikazioarekin zerikusia dutenak; 6, lehiakortasun hobekuntzarekin erlazionatuak; 7, produktu berria garatzea eragin dutenak; eta 6 proiektu, prozesuan edo produktuaren hobekuntzan eragin dutenak.

- **Turismo eta merkataritza** sektoreei laguntza emateko lan ildo.

2011ko Compite Programaren deialdia irekita dago urriaren 15era arte.

2. GAIKUNTZA ETA FINANTZA ZAINZTA EREMUETAN LAGUNTZEKO PROGRAMA (SPRI)

Enpresa ertain eta txikiei zuzenduta. Programa honen bitartez, enpresek aholkularitza ekonomikoa eta finantzarioa hartzen dute dohainik.

Azaro Fundazioak Lea-Artibai eskualdeko 13 enpresei aholkularitza ekonomikoa-finantzarioa ematen dihardu laguntza honen baitan.

3. BESTE PROGRAMA BATZUK: Gaitek, Nets, + innova, Lehiakortasuna Hobetzeko Plana, Prointer eta Nazioartekotze Programa, beteak beste (SPRI eta Bizkaiko Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoaren Saila)

Enpresetan lehiakortasuna, nazioartekotzea, dibertsifikazioa, berrikuntza eta abar bultzatu eta babesten dutenak.

Lea-Artibai eskualdeko enpresek laguntza hauen guztien inguruko informazioa eskura dute
Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentzian.

LEIHATILA

EPEA ZABALIK DAUKATEN DIRU LAGUNTZAK ▶

Berrikuntza

«MINI CONNECT» PROGRAMA

Hazkunde-gaitasun handiko enpresa gazte berritzaileek proiektua abian jartzeko beharrezko diren gastu edo inbertsioak egiten laguntzeko.

«CONNECT» PROGRAMA:

Enpresa gazte berritzaile eta hazkunde-gaitasun handia dutenek gastu eta inbertsioak egiteko laguntzak.

Lehiakortasuna hobetzeko

COMPITE INICIATIVAS

Aholkularien laguntzaz lehiakortasuna hobetu eta horien garapen ahalmena indartzeko laguntza.

+ INNOVA IBILBIDEAK

Lehiakortasun eta Berrikuntza Ibilbideak egin, garatu eta berrikusteko laguntza.

+INNOVA ALDATU

Enpresen antolaketan, merkatuan eta berrikuntza gaitasunean proiektuak egiteko laguntza.

JABETZA INDUSTRIALA BABESTEAK

Patente eta erabilgarritasun ereduaren eskabideak egiteko laguntzak.

Informazio eta komunikazioa teknologia

+DIGITAL@:

Intranet eta extranetak egiteko eta bestelako on-line zerbitzuak.

Inbertsioetarako

MEP

Industriako produkzio makineria berria erosi eta zaharra txatar bihurtzeko laguntzak.

Finantzazioa

AFI

Inbertsio eta zirkulatzaileerako eskatzen diren maileguetan laguntzak.

AFA

Autonomoek inbertsioak egiteko eskatutako maileguetarako laguntzak.

RESISTE

Finantza zorrak negoziatzeko homologatutako goi mailako finantza aholkulariak kontratatatzeko laguntzak.

BIDERATU

Krisialdian dauden enpresei berregituraketa eta berbizitze neurriak hartzeko arlo industrial eta finantzarioan kanpo aholkulariak kontratatatzeko laguntza.

Besteak

ONDORENGOTZA

Enpresa txiki eta ertainei jabetzaren edo kudeaketaren ondorengotza planifikatzen laguntzeko.

MERKATARITZA

Establezimenduen titular aldaketarako eta berrien sorrerarako laguntzak.

PRAKTIKETAKO KONTRATUAK EGITEKO LAGUNTZAK

Praktiketan kontratatu den pertsonaren soldatan laguntza.

ENPRESAK SORTZEKO DIRULAGUNTZA

Inbertsioetarako eta lehenengo urteko gastuetarako laguntzak.

ENPRESA SORTU BERRIEK - KONTRATAZIOAK EGITEKO

Urte bat baino luzeago diren kontratuetarako laguntzak.

Informazio gehiagorako edo eta eskaria egiten laguntzeko DEITU:

94 6169172
94 6169088

Enpresentzat elkargunea

JARDUNALDIA:

Lan komertziala, nola saldu enpresako produktu eta zerbitzuak?

2011ko irailaren 22an

Izena emateko eta informazio gehiagotarako nurrutibeaskoa@leartibai.com

Leartibai
Garapen Agentzia

www.leartibai.com
leartibai@leartibai.com

azaro
fundazioa

www.azarofundazioa.com
azaro@leartik.com